Euskal Idazleen Elkarteak eskainitako webgunea

BIDEOA

Elena Odriozola donostiarrak ehun liburutik gora liburutxo ditu. Trazu dolikatua eta intimista dute haren ilustrazioek. Ilustrazalleen Txokoan, Donostiako Aiete Kultur Etxean topatuko duzue Elena Odriozolaren lanekin osatutako erakusketa. Bisita orduak, astearteetik ostiralera: 16:00 - 20:30. Larunbatak: 10:00 - 14:00 / 16:30 - 20:00. Igandeak: 10:00 - 14:00. Irailaren 15a bitarte ikusgai.

AGENDA

'3 Lak', Donostiako Poesia Orduak
Ikuskizunak
2013-09-03 | Donostia

'Tenpora', Donostiako Poesia Orduak
Ikuskizunak
2013-09-04 | Donostia

'Ez zaitut abandonatuko' sentikaria Bilbon
Ikuskizunak
2013-09-17 | Bilbo

Agenda osoa ikusi

Asel Luzarragari elkarrizketa

Ostegunа, 2010-11-18

Txalapartak kaleratu duen *Utopiaren itzalak* nobela irakurri berritan jo dugu Asel Luzarragarengana. Txilen atxiltoua izan osteko esperientzia neurri batean atzean utzita bueltatu da Euskal Herria. Liburuaren aurkezpenari loturik eskainitako elkarrizketari gehitu behar izan dizkie azkenaldian atxiloketari, anarkismoari eta maputxeei buruzkoak.

"Neure burua zalantzan jartzea gustatzen zait".

Ironia garratza. Hori ertorri zitzaigun burura *Utopiaren itzalak* liburua irakurri ostean, Asel Luzarragak Txileko atxiloaldian pairatu zuena jakinik. Ironia egilearen bosgarren nobela inoizko politikoena delako, inoiz baino argiago hitz egiten duelako munduari buruz duen ikuspegiaz, norbanakoaren zereginari buruz, kapitalismoa autosuntsipenerako bidean laguntzeko beharrari buruz. Liburu hau editorearen eskuetan zelarik ertorri zan bai Txilen bai Euskal Herrian jende ugarik salatu duen muntaia poliziala, liburu honek irakurlearengan gogoeta pizteko erronkari heltzeko pronto zelarik zabaldu zion bortxearen amaraunak idazleari bere ferekia beltza. Ironia diogu, gertatutakoa gertatuta ere Asel Luzarragarekin elkarrizketa umorez eta irribarretsu baino ezin delako egin.

'Iraultza posible ez bada, mendebaldeko demokrazia burgesek eta marxisten estatu totalitarioek iraultza posible oro ezinezko bihurtu badute, langileen benetako mugimendu aske eta bere kasa antolatu oro hil badute, langileengan ere burges bihurtzeko ametsa sortu badute, beste iraultza mota bat sortu behar da. Herri mailan jokatzea. Euskal Herrian edo beste edononork bere zilborrari begira jardutea, alferrekoa da. Mundua da aldatu beharrekoa, eta horretarako mundu mailako taulan jokatu behar da. Kapitalismoak bere egin ditu gizartearen arnak, xurgatu egin ditu, 'demokratizatu'. Komunismo gorriak gauza bera egin du, estatalizatu egin ditu langileen xedeak, borrokak, ametsak, eta esku hutsik utzi ditu langileak eurak. Beraz, zergatik ez egin kapitalismoaren armak geure, hura deuseztatzeko?

(...)

Egunen batean, argi dago, gizarte neoliberala kolapsora irtisiko da. Gizartearen eta ekonomiaren kolapsora. Ordua baino ez dira kontzientziak berriro piztuko gure gizarte 'aberats' ustel era berekoi honetan. Hondoa jo beharko dugu jendeak ekhartsun zintzoa eta benetako askatasun nahia berreskura ditzan.

Asel Luzarraga, *Utopiaren itzalak*.

***Utopiaren itzalak* nobela agian inoiz idatzi duzun politikoena da. Zure bosgarrena liburua, nola iritsi zara puntu honetara?**

Egia esan idazten hasi nintzenetik planteatu nuen apur bat horrela, nire ideiak apurka-apurka agertzen joatea. Hasierako nobeletan mezuak sartuz ulertu gura dituenarentzat, baina garrantzia ematen irakurleak harrapatzeko istorio erakargarriak egiteari. Irakurleak nire literaturan murgiltzen eta eroso sentitzen joan ahala ideologia dosi handiagoak ematen joan naiz.

Liburuan ez dugu kaleko testuinguruan ikusiko gizartearri buruz kontatzen dena, pertsona baten barne bilaketaren bidetik egingo da gogoeta. Hasieratik argi izan zenuen aukera da hori?

Bai, horrela nuen pentsatua. Batez ere Zosu protagonistaren barneko prozesu hori da ardatza. Bestetik banuen buruan bera eta osaba Arturren arteko joko dialektikoa garatzea, baina gerora ez nintzen horretan hasieran pentsatu beste murgildu, errepikakorra suertatuko zela ikusi nuelako. Niretzat garrantzitsuena prozesua bera zen, Josuren bilakaeraren bitartez zabaldu nahi nuen hausnarketa eta gizartearen isla.

Narrazioan pisu handia du nolabaiteko irakaste-ikasle harremanak, modu bikoitzean gainera: osaba Artur eta oroimeneko Luismi daude Josuren beste muturrean. Zer nolako jokoa bilatu du duzu haiekin?

Orain arte ez dut inoiz esan baina Luismi omenaldi txiki bat da. Luismi izeneko irakaste bat eduki nuen eskolan, inoiz eduki duten irakaslerik onena. Hamabost urte neuzkaneko garai gatazkatsu hartan, zeinean punkean bete betean sartuta nengoen, bera izan zen benetan nintzen lez aintzat hartu ninduen irakasle bakarreretakoa, oso pertsona interesgarria. Luismi pertsonaianen filosofiak zerikusia daukaa irakasle hark zuenarekin. Bietan nabarmenena osaba Artur da nolanahi ere, itzaletatik argirako bide horretan Josuren hasierako nihilismotik zerbait eraikitzaraino eeb aktibismora bultzatzen duen pertsona. Artur litzateke Josuren bidaiaren motorra. Hala ere ez naun Artur pertsona argia izaterik nahi, argilunak edukitzea eta batzuetan pertsonaia deserosoa izatea bilatu dut. Zenbaitetan ez dakizu ondo zer joko darabilen. Azken finean denok dauzkagu gure argilunak, gure tolesak, bizitza honetan inor ez gara ez zintzo-zintzoak ez gaizto-gaitzoak.

Josu pertsonaianen barnean hainbat arteko elkarbizitza dago, izendatu dituzu gainera: Kami, Josu, Kaze; iragana, oraina eta nolabaiteko etorkizuna. Nobelan zehar sarri aldatzen da narratzailearen ikuspuntua, hitz egiteko modua, erabilitako pertsona... zaila egin zaizu zattitutako barne mundu hori kudeatzea?

Ez dakit gero irakurle batek zelan interpretatuko duen, baina niretzat oso naturala izan da. Idatzi ahala momentuak eskatzen zituen pertsona egin nuen, horregatik tartekatu nituen esaterako hitano-zutano esaldiak. Bakoitzak bere ezaugarri propioak baditu ere ez nuen nahi erabateko zatiketa izatea, ahotsak batzuetan nahastu egiten dira. Josuren barneko zurrunbilo horren isla da nahasmen hori. Bide batez, hori neurri batean bazen Eskorbutori egindako omenaldi txiki bat ere, protagonistaren izenarekin batera: Josu Eskorbuto eta Eskizofrenia disko gogoangarria neuzkan gogoan. Josu pertsonaia eskizofrenikoa ez bada ere, ahotsen jolasarekin keinu bat egin nahi nion Eskizofrenia diskoari eta kantari.

Bigarren mailako pertsonaiek nolabaiteko ispilu jokoa osatzen dute, bakoitzetik ateratzen du Josuk bere buruaren isla. Horren arabera joan zara ehuntzen pertsonaian sarea?

Bai, erdiko pertsonaia Josu da, beste pertsonaian jokoa bere ikuspuntutik ikusten da. Amarekin zeukan harremana edo hartaz dakiena, deskribatzen joaten dena... iraganeko pertsonaia askok daukate garrantzia, euretako batzuk hilda daude eta iraganaren proiekzioa egiten dute. Josuk atzean utzi dahi du iragana, baina hark izan zituen gauza onak ere, bere momentuan aprobetxatu ez zituenak. Iraganari loturik daukza bera nor den eta nor izan gura duen ezagutzen joateko ispiluak. Lauritarekin daukan harremanak ere laguntza handia ematen dio bai Arturrekiko harremanean zubia egiten bai sosegu apur bat ematen.

Josuren barne-mugimenduek eraman zaituzte hariak tzirikordatzera, edo hasieratik zenuen argi gertaeren oinarrizko eskema?

Gauza batzuk argi nituen, Artur eta Josuren arteko harremana eta Arturren atzean ezkutatzen dena adibidez. Izan ere hor baitago mezu nagusia: gizartearen kolapso ekonomikoaren teoria, hura bideratzeko pertsonaiak eta harremanak ziren bitartekoak. Gero beste gauza asko etorri dira eta neure buruari eramaten utzi diot. Kiri bezalako pertsonaia batzuk hasieran pentsatuta ez neukan eginkizuna joan ziren hartzen, iraganeko neuman izlata luzatzeko zien elementuak ere pisua hartzen zien heinean. Neurri handi batean intuizioari utzi diot gidatzen, bukaeran garrantzia daukaten gauza asko etorri ahala hartu nituen.

***Utopiaren itzalak* iaz Txilen atxilotu zintuztelarik ia maitua omen zenuen. Ironia handia dirudi gertatu zaizuna liburua irakurri ostean. Txilen etxeko atxiloaldian borobildu zenuen *Utopiaren itzalak*, gertatutako guztiak izan du eraginik azken emaitzan?**

Kasualitate eta ironia latza izan zen, bai. Nik liburua iazko uztailean eman nuen bukatutzat, orduan bidali nion editoreari. Gero kartzelan nengoenean hasi ginen ikusten zelan egin edizio lana, azken zuzenketak eta beste. Etxeko atxiloaldian ostera egin genuen bakarra zuzenketak izan ziren, zalantza batzuk argitzen joan... ohiko edizio lana. Mamian ez dut ezer ukitu beraz gertatutakoak ez du islarik eduki, 'patuaren' ironia izan da (kar-kar).

Ironia diogu, izan ere liburuan badago 'erabatekotzat' ematen diren hitzak ertatibizatzeko joera, horien artean terrorismoa eta gaizkilea izatea zen. 'Utopia' bera 'Itzala'ri loturik ageri zaigu. Ahalegin kontzientzea izan da hori?

Ni kontzeptu potolo eta erabateko guztiekin zalantza asko dauzkat. Neure burua zalantzan jartzea gustatzen zait beti. Gero nominaban beti jarraitzen dut ildo beretik, baina gustukoa dut aukera hori edukitzea. Gure gizartean etengabe erabiltzen diren hitz batzuk, 'demokrazia' eta 'terrorismoa' esaterako, esanahiz guztiz hustuta daudela edo erabilera oso zehatz eta askotan maitzurra daukatela iruditzen zait. Horren atzean askotan dagoen hipokrisia ere biluztu nahi nuen apur bat, Arturren hitzen bitartez.

Narrazioa orain urte batzuetako Euskal Herrian kokatua dago, baina pentsamendu politikoa oso gaurkoa dirudi. Arturren gogoetek agian gehiago begiratzen diete XXI. mendeko erronka politikoen planteamenduei, garai hartan esaten zirenei baino. Pentsamendu politikoari dagokionez zein neurritan da 80ko eta 90eko hamarkada hasierako narrazio bat, zein neurritan gaur egungoa?

Nobela gaur egunetik dago pentsatuta. Idazten hasi nintzenean ez nekien gero krisialdizat saldu diguten egoera hau etorriko zenik. 2008a baino lehenago hasi nintzen idazten, kolapsoaren teoria buruan neukala. Hasierako zirriborroa egin nuenean ez nuen pentsatua hamarkada hiletan kokatzea ere, baina gero pentsatu nuen perspektiba eredutsu atzera egitea ondo zegoela, gaur egun bizi duguna aspaldidik daroagun bidetik datorrela ikusteko: neoliberalismoak ezarri duen bide ekonomikotik ez horren inguruan bizi izan ditugun edo pairatu ditugun politiketatik, hain zuzen ere. Bestetik atzera egiteak 80ko hamarkadari omenaldia egiteko balio zidan, baina erromantzismorik gabe. Nik izugarri maite dut garai hura, oso garrantzitsua izan zen nire bilakaeran, baina gauza ilun asko ere egon ziren. Horietako bat da droga bera, heroinak batez ere oso gogor jo zuen hemen. Garaia literaioki ere erakargarria egiten zitzaidan, batez ere 1992. urte seinalatu hori: olinpiadak, expo-a eta orduan batzuek ospatu zuten bostehun urteko genozidio indigena. Hor Lauria indigena pertsonaia da gakoa. Askotan patemalismo handiz jokatzen dugu hirugarren munduarekiko. Guztiz porrot egindu utzi ditugu hango herriak, guk eman dizkiegu eurak kakazteko edo lur jotzeko formulak, eta orain uste dugu geuk ere eman behar dizkiegula aurrera egiteokak. Baina formula bakarra, lehenengoa, euren burutik gure oina kentzea da. Eurei nahi duten bezala egiten uzten badiegu segurunenik asko edukiko dute guri irakasteko, eta segurunenik mundua aurrera ateratzeko bide askoz osasuntsuagoa izango da. Liburuak funtsean badauka ikuspegi bikoitz hori, garai hartan kokatua egonik ere gure garaiei begira dago sortua.

Musikaren erlazioan omenaldi ugari dago. Entzun dizugu inoiz Latinamerikan egon zarelarik Euskal Herriko 80ko hamarkadan bizitzearen sentsazioa izan duzula, urte batzuk atzera salto egitearen nolabaiteko sentipena. Izan du zerikusirik horrek liburua sortzerakoan?

Txilen, Temucon bizi izan dut hori, hango giroa momentu batzuetan 80ko hamarkadako Bilboko gaztetebezko erudien, orduko oroitzapen asko ekortzen zitzaidan gogora. Garai hartako punkaren eztandak aztarna handiak utzi ditu nire nortasunean eta nire mundu ikuspegian, eta musikak horretan berebizko garrantzia eduki zuen. Agian punkak nire Ido ideologikoa ere markatu zuen, anarkismora hurbiltzea eta gizartearekiko beste kezka moduko bat sentitzea. Ez dakit lehenagotik ote zegoen nire baitan hori, agian kezka horrek punkaren aurkitu zuen ateratzeko bidea, edo agian punka entzuteak bideratu ninduen kezka hartara, ez dakit. Argi dagoena da garrantzia handia eduki zuela: gure gizartean belaunaldi oso bat markatu zuen eta kulturan eragin handia eduki zuen. Omenaldixoa egin diet hortaz nire musika-talde kuttun batzuei. Hiriko eta baizterreko poesia itzela dago hainbat talderen letretan.

Atxiloketaren kontuan zizar aski zerikusirik izango zuen zu idazlea izateak, maputxoen alde agertu izanak. Artea, sormena, literatura... eta 'konpromiso' alpatzea tabua dirudi egun, belaunaldi batzuen itxi gaboko zauria, berridatzi beharreko eztabaida, modan egotearri utzi dion gaia. Nola lotzen dituzu 'idazlea' eta 'konprometitua', zer beste hitz topatu behar genuke bestela?

Nik uste dut kontua dela ia pertsona konprometituak garen ala ez. Pertsona konprometituak bagara berdin da idazle, musikari, margolari edo bizirindulari izatea. Lehenik eta behin ez bagara pertsona modura konprometituak, gure idazlan, sukaldari edo gertsero lez ere konprometituak izango. Nik uste dut norberaren baitan daqueda erabaki hori. Egia da hitz hori nahiko desgastatua egon dela, baina nik esango nuke edozein arlotan batez ere pertsona apur bat kontseukenteak behar direla.

Hainbeste gauza bizi eta gertatu izanak edukiko du eraginik hurrengo liburuan?

Atxiloketa gertatu zenean banenbilen hurrengoa idazten, Utopiaren itzalak edukiko zuen bezala, baina hasieratik nahiko aurreratuta zegoen beste lan bat. Prozesu hori etenda geratu zen polizek nire ordenagailu, disko gogorrak, gauza guztiak eramanez ohartzenean. Ezin zuan nuen lana jarraitu era kartzelan berbaten heldu nion lehendik pentsatua neukan proiektu bati. Baneukan gogoa eugunen batean Araukanian bizi den egoeraren gaineko zerbait idazteko, bai errepresioaren berri emateko bai maputxoen munduaren errealitatea islatzeko. Gertatutakoak proiektua bizkortu zuen. Bestetik orainfare hasiko naiz nik neuk lehen eskutik edo nire lamuan bizitzen ari naizena nobela batean islatzen, fikzio modura ere jasotzen. Gertatutakoak eraman nau lehengo inoiz pentsatuko ez nuen erabaki bat hartzera: liburu bat erdaraz ere idaztera, fikziotik kanpo. Han gertatutako guztia kontatu eta salatu nahi dut, batez ere Txilen zabaltzeko baina munduko bazter guztietan errepresioaren biktimak direnentzat sortua, modu xume batean tresna izateko xedez. Liburu biekin nabil orain batera.

Irakurketen bitarteko bidaia eskaintzen da liburuan, zurearen bidaia propioaren isla da edo irakurleari luzatzen diozun proposamena?

Gehiago da proposamen bat. Alde batetik euskarak ia eredu literaioirik ez zegoen garaiko, gure literatura asmatzen hasi zeneko izen batzuk idatzi ematen ditut. Bestetik eta batez ere, ikuspegi ideologikoak erabili nahi nituen irteregarritik izan daitezkeen beste iturri batzuk ikpatzeko, gure gaur egungo munduaz leplamaletazko. Irakurleaengan interesa piztuko edo sortuko ez ezezik, gure gizartea ere ikusgarri egiten dut. Nik uste dut bai pertsonamendu politiko-filosofikoan egun ere asko dagoela ikasteko eta aplikatzeko.

Josuren bilakaeraren bitartez zabaldu nahi izan dut hausnarketa eta gizartearen isla



'Demokrazia' eta 'terrorismoa' bezalako hitzak esanahiz hustuta daude

Gizartearen kolapso ekonomikoaren teoriari buruzkoa da mezu nagusia